

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GORBEIALDEKO KUADRILLA

Gorbeialdeko Kuadrillako idazkaritza- eta kontu-hartzaitza-lanpostua betetzea, gaikuntza nazionala duten toki-administrazio funtzionarioentzat gordeta

Kontuan hartuta, beharrezkoa izango da kontu-hartzaitzako idazkaritza-lanpostua betetzea, hutsik egotearen ondorioz.

Gaikuntza nazionala duten toki-administrazio funtzionarioen araubide juridikoari buruzko martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 48. artikulua eta hurrengoak ikusi dira.

EBATZI DUT

LEHENENGOA. Gorbeialdeko Kuadrillako idazkaritza- eta kontu-hartzaitza-lanpostua betetzeko gaikuntza nazionala duen toki-administrazio funtzionarioaren izendapena proposatzeko prozedurari hasiera ematea, aipatutako 128/2018 Errege Dekretuaren 49., 50. eta 51. artikuluetan aurreikusitako moduetako batean eta adierazitako lehentasunaren arabera.

BIGARRENA. Iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, 5 egun balioduneko epea irekitzea bete beharreko lanposturako hautagaiek parte hartzeko eskabideak aurkezteko, eranskin gisa doan ereduaren arabera, eta adierazitako dokumentazioa erantsita.

Gaikuntza nazionala duten toki-administrazio funtzionarioak izendatuko dira, eta lehentasuna izango dute lanpostuaren azpieskala bereko hautagaiek.

Egoera bakoitzaren barruan, lehentasuna izango da Eusko Jaurlaritzak eskabideak aurkezteko epea amaitu aurretik argitaratutako merezimenduen azken baremo orokorraren arabera.

Idazkia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean aurreikusitako edozein modutan aurkeztu ahal izango da.

HIRUGARRENA. Hautagaien lehentasun-hurrenkera ezarri ondoren, eta Gorbeialdeko Kuadrilak hurrenkera horretan izendatzearen aldeko txostena eman ondoren, hautagai bakoitzari, hamar egun balioduneko epean, destinatuta dauden toki-erakundearen aldeko txostena aurkezteko eskatuko zaio, aipatutako artikuluetan adierazten den bezala, bai eta kasu bakoitzean eskatzen diren gainerako txostenak ere.

LAUGARRENA. Hautagairik aurkeztu ezean, gaikuntza nazionala duten toki-administrazio funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52. eta 53. artikuluetan aurreikusitako prozedurarekin jarraitzea.

BOSGARRENA. Osoko Bilkurari ebazpen honen berri ematea hurrengo bilkuran.

SEIGARRENA. Lanpostuaren ezaugarriak:

Izena: Idazkaritza. 3. mota.

Lan-harremana: gaikuntza nazionaleko funtzionarioa.

Eskala: gaikuntza nazionala.

Azpieskala: Idazkaritza-Kontuhartzaitza.

A1 taldea.

Lanpostu-mailako osagarria: 27.

Berriazko osagarria: 26.600,00 euro.

Hizkuntza-eskakizuna: 4. derrigortasun-data: 2026ko martxoaren 4a.

Murgian, 2026ko martxoaren 4an

Presidente

AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA

ERANSKINA

..... jauna/andrea NANaren titularra
(jakinarazpenetarako helbidea: herria,
telefono-zenbakia:), gaikuntza nazionala duen Toki Administrazioako funtzionarioa,
..... azpieskalakoa, eta, gaur egun,
lanpostua betetzen duena tokiko erakundean,(e) k egin-
dako izendapenagatik, jabetza-datarekin (edo jarduneko zerbitzura itzultzeko egoeran egonik –
lankidetzeta-lanpostuak kentzea – izendapen askeko lanpostuetan uztea).

Azalpena

Jakin duela Gorbeialdeko Kuadrillako idazkaritza- eta kontu-hartzaitza-lanpostua hutsik dagoela/ez duela betetzen titularrak, eta behin-behineko izendapenaren, zerbitzu-eginkizunen edo metaketaren bidez bete daitekeela.

Lanpostuari dagozkion eginkizunak behar bezala betetzeko eskatzen diren baldintzak izanik, indarrean dagoen legediaren arabera eta dagozkion izapideak bete ondoren, honako hau

Eskatzen du

Gorbeialdeko Kuadrillako idazkaritza-kontuhartzaitza lanpostua behin-behineko izendapenaren bidez, zerbitzu-eginkizunen bidez edo metaketaren bidez (ezabatu dagokiona) betetzeko prozeduran parte hartzea.

Honekin batera doa:

* NANaren fotokopia.

* Gaikuntza nazionala duen toki-administrazioako funtzionarioa dela egiaztatzen duen agiria.

* Lanpostua metatuta eskatzen bada, erantzukizunpeko adierazpena, adierazteko ez duela jada izendapen metaturik betetzen.

..... (e) n, 20.....(e) koaren(e) (a) n.

Sinadura: